

## **Joxemi Zumalabe hil da. Lagunek gogoan**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-01-14: IV.

Bi hitzetan esateko euskararen militantea zen; euskaragan fedea zuen gazte militante nekaezina. Militantea, ez politikaren zentzuan, erlijio baten antzeko sinesmenari dagokionean baizik. Hau zen bere bokazioa gaztetxo zenetik. Buruz oso argia zen bihozberoa; aise nekatzen ez den horietakoa, apala oso; eta gizona, buruz, zentzuz eta kuraiaz ongi hornitua.

Orain bizpahiru aste belodromoan asmo honen inguruan bildu zen munduaren aurrean hitz batzuk esan behar nituen. Joxemi dagoeneko nahikoa ahuldua zegoen, eta ez zen bertaratuko, bera; neuk hala uste, eta azken pasarte hau prestatu nuen:

"Hitz labur bat amaitzeko: lorpen honen eragile nagusi, ongi ezagutzen duzuen Joxemiel Zumalabe izan dugu, eta zuen baimenarekin, Joxemiri eskaini nahi nioke gaur arratsaldean belodromo honetan denon artean bildu dugun arnasa laster berriz gurekin izan dadin".

Baina Joxemi azken orduan sendagilea alboan zuela etorri egin zen, beretzat azkenekoa izango zen jaia ikustera, eta ez nintzen hau esatera ausartu, haserretu egingo zitzaidan eta.

Hau jasotzea bururatu zait hil zaigun honetan.